


DEBA ZERBITZUEN GIDA



ALKATEAREN ONGI ETORRIA

Ongi etorri Debara!

Debako alkatea naizen heinean, debar guztion izenean ongietorria eman nahi dizut. Historian zehar, euskaldunok, tartean debarrak, migratzaileak izan gara munduko hainbat lekutan, eta eskuzabaltasunez eta adiskidetasunez hartu izan gaituzte beti. Gu ere harrera herria gara urte luzez, eta debarron berotasuna eta gertutasuna hitz hauen bitartez sentiarazi nahi dizkizut.

Jakin ezazu Deba herri turistikoa ere badela, eta urtean zehar, asko direla bertatik pasatzen diren pertsonak, helburu ezberdinekin. Batzuek eta besteek gure herria aberasten duzue, zuen kulturak, ohiturak, hizkuntzak eta bizi-esperientziak Deba aberasten dute. Elkarrekin, bizikidetzat indartu eta herri bezala etengabe garatzen jarraitzen dugu.

Migrazio-fluxuak etengabeak izan dira Debako historian. Horregatik, hona aukera berrien bila iritsi bazara, etxean bezala senti zaitezten nahi dut. Eskuaratean duzun gida honen helburua da gure udalerrira hobeto ezagutu eta zu integratzen laguntzea. Hemen aurkituko duzu Udalaren zerbitzuei buruzko funtsezko informazioa, baita gure herriko ehuna osatzen duten kultur elkarte eta eragileei buruzkoa ere.

Gure herriarekin eta komunitatearekin bat egitea erabaki zenuenetik, Debako parte zara, debarra zara. Udaletxeko ateak zuretzat zabalik dituzula jakinarazi nahi dizut; jo guregana edozein zalantza edo kontsulta argitzeko. Gure konpromisoa duzu, ongi etorria sentiarazi nahi zaitugu, zu babestua sentitzea nahi dugu, integrazioan lagundu nahi zaitugu, urrats bakoitzean zure alboan izango gaituzu.


Ongi etorri Debara, zure etxe eta herri berrira. Badakigu elkarrekin hazten eta aurrera egiten jarraituko dugula.

Alazne Txurruka Allika
Debako alkatea



DEBAKO MAPA

- 1- UDALETXEA
- 2- GIZARTE ZERBITZUAK
- 3- ANBULATEGIA
- 4- LIBURUTEGIA
ETA KZ GUNEA
- 5- KIROLDEGIA
- 6- TREN ESTAZIOA
- 7- LUZARO
- 8- MENDATA INSTITUTUA



ITZIARKO MAPA

- 1- UDALETXEA
- 2- ANBULATEGIA
- 3- BURUGORRI
- 4- FARMAZIA

HISTORIA ETA EZAUGARRIAK



DEBAKO UDALA

Herria sortu baino milaka urte lehenagotik, historian zehar Debak harreman estua eta zuzena izan du itsasoarekin eta urarekin. Herrian izandako lehenengo giza-asetamenduen aztarnak Goi Paleolitikoak dira. Bitxia bada ere, milaka urte geroago, erromatarren kronikek ere aipatzen dute gure kostaldea, eta 'Deva' ibaiari ere egiten zaio erreferentzia, denborarekin herriari izena emango dion ibaia.


Deba, herri gisa, 1343 urtean sortu zen. Urte batzuk lehenago, 1294an, Monte Real de Iciar-ko biztanleen hiri gutuna jaso zuten Alfonso IV erregearen eskutik. Orduko biztanleek, dagoeneko, kostaldera gerturatzearen beharra eta onura aztertu zuten, eta itsaso bazterrean herria bera sortzea erabaki zuten: Monreal de Deva.

Deba ibaiaren eskuinaldean kokatutako herria da Deba, arrantza, nekazaritza, industria eta salerosketa izan ziren ekonomiaren motorrak. Kostaldeko gainontzeko arrantzaleen antzera, debarrek balea harrapatzen ematen zuten ahaleginik handiena, nahiz eta bestelako arrantza ere behar behearezkoa izaten zuten Burdinolak ziren industriaren oinarri, bertatik burdina-tresnak ateraz; lantegi haiek ibai eta erreka bazterretan kokatzen ziren, ur indarrak baliatu ahal izateko.

XV. mendean Debak garai oparoa bizitu zuen, itsasoko trafikoaren eraginez. Izan ere, Gaztelako eta Aragoiko artileak Debako portutik esportatzen ziren Europako hainbat herrialdetara. Orduñako pasoa zabaldu zutenean ordea, burdingintza eta kaiko uren sakontasun eskasa medio, Debak zuen onura estrategikoa uri galdu egin zuen pixkanaka.

XIX. mendearen erdialdean, portuak zuen trafikoak behera zuen neurrian, Debak bere ekonomiarako onuragarri izango zen beste bide bati heldu zion: turismoa edo udaldia. Itsas-bainuek garrantzia hartu, eta Debak duen hondartza atsedenerako leku bihurtu zen askorentzat. 1960-70eko hamarkadetan gustu eta moda aldaketak izan ziren arren, Debak ez zuen tradizio turistikoa galdu.

Gaur egun, Debak itsasoari begira jarraitzen du. Hondartzek, itsaslabarrek eta kretazikoko kareharrizko mendiguneez Lurraren milioika urtetako historia geologikoa gordetzen dute, eta Euskal Kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkea ezagutzeko bidaia paregabea eskaintzen digute. Eta baita, Historia Aurreko Bailaren berri izateko aukera ere.



ERROLDATZEA

DEBAKO UDALA

Portu kalea 1, 20820

Deba

☎ 943 192 840

✉ deba@deba.eus

www.deba.eus

GIZARTE ZERBITZUAK

Informazio orokorra:

📍 Simon Berasaluze plaza 2

☎ Telefona: 943 19 29 33

✉ gizartezerbitzuak@deba.eus

Orduetgia: 08:00etatik

15:00etara, astelehenetik

ostiralera (Hitzordua behar da)

Deban bizi diren herritar guztiek eman behar dute izena udal erregistroan, eta horri erroldatzea esaten zaio. Etorri berria bazara, legezko egoeran egon ala ez, Udaleko erroldan izena eman behar duzu, eta horrek, hainbat eskubide bermatuko dizkizu debar izango zaren heinean:

- OSASUN PUBLIKORAKO LAGUNTZA
- SEME-ALABEN OINARRIZKO ESKOLARATZEA
- GIZARTE ZERBITZUETATIK ESKAINTZEN DIREN BALIABIDEAK
- ETAB.

Erroldatzea pertsonala da, hau da, norberak egin behar du, beraz, ezin du inork zure izenean egin. Etxebizitza jabearen baimena aurkeztu beharko duzu.

Era berean, garrantzitsua da gogoraraztea Europako Erkidegokoa ez den atzerritarrak, iraupen luzeko egoitza-baimena duenak salbu, Udal Erroldan izen ematea berritu behar duela izena eman zuenetik bi urte igaro baino lehen. Ez badu hori egiten, Udalak baja emateko arriskua dago.

Debako Udalak Gizarte Zerbitzuen arloa du, eta honen helburu nagusia da Deban erroldatuta gauden eta Deban bizi garen pertsonen gizarte-premiak antzematea eta premia horiei erantzutea.

Horien artean:

- Autonomia pertsonala sustatzea eta mendetasunaren ondorioz pertsonak eta familiek dituzten premiak prebenitzea eta premia horiei erantzutea.
- Babesgabetasun egoeren ondorioz sortutako premiak prebenitzea eta premia horiei erantzutea.
- Bazterketa-egoerak prebenitzea eta egoera horiei erantzutea, eta pertsona, familia eta taldeen gizarteratzea sustatzea.
- Larrialdi-egoeren ondorioz sortutako premiak prebenitzea eta premia horiei erantzutea.



ERREGULARIZAZIOA

Erregularizazio administratiboa da, etorri berriak, Deban bizi eta legezko egoeran egoteko behar dituen baimenak eta bisa lortzea da. Zure erregularizazio prozesua zein egoeratan dagoen eta jarraitu behar duzun bidea argitzeko Udaleko Gizarte Zerbitzura jo dezakezu.

Baliabideak:

BILTZEN: ATZERRITARRENTZAKO ARRETA JURIDIKOKO ZERBITZUA (EUSKO JAURLARITZA)- AHOLKU SAREA

Telefonoa: 900840890

E-posta: asesoria@euskadi.eus

GURUTZE GORRIA (Eibar)

Administrazio-egoeraren eta Atzerritarrei Buruzko Legearen inguruan dituzun zalantzak argitu nahi badituzu bertara jo dezakezu.

Informazioa, orientazioa, aholkularitza eta zerbitzu espezializatuetara bideratzea eskaintzen dituzte.

Oharra: telefonoak itzulpen-sistema dauka EAEn hitz egiten diren hizkuntza nagusietarako.

Telefonoa: 943176248



OSASUNA

DEBAKO OSASUN ZENTROA

📍 Bastinuixa Kalea, 0, 20820 Deba,
☎ 943 19 24 24

DEBAKO BOTIKAK

A. Zalduegi

📍 Lersundi kalea 20
☎ 943 191 055 / 669 262 201

H. Burgoa

📍 Astillero kalea 2
☎ 667 338 890

ITZIARKO OSASUN ZENTRUA

📍 Plaza Zabalsoro, s/n, 20829
☎ 943 19 24 24

ITZIARKO BOTIKA

📍 Zabalsoro 1, Itziar.
☎ 943 199 042

Deban eta Euskal Autonomia Erkidegoan osasun zerbitzua eta asistentzia doakoak dira. Zerbitzua eskuratu ahal izateko behar beharrezkoa da Osasun Txartela eskuratzea. Hori horrela, eta Udalean erroldatu ondoren Osasun Zentrora jo behar duzu, eta bertan eskuratu.

Osasun Zerbitzuan izena eman ondoren, Debako edo eta Itziarko Osasun Zentroko zerbitzua eskuragarri izango duzu, eta bertan besteak beste, familia medikua, medikuntza orokorra, pediatra eta bestelakoak aurkituko dituzu. Horretarako, aldez aurretik hitzordua hartu beharko duzu 943 19 24 24 zenbakira deituta (08:00 - 20:00) edo Internetez www.osakidetza.euskadi.net helbidean.

Horrez gain, ordutegi horretatik kanpo, osasun larrialdirik baduzu, osasun zentro hauetako batera jo dezakezu:

MENDAROKO OSPITALEA

Mendarozabal auzoa z.g
20850 Mendaro
943 03 28 00

ETENGABEKO ARRETA GUNEA (EAG) EIBAR

Otaola hiribidea 6-8
20600 Eibar
943 44 90 00
Astelehenetik ostiralera 17:00-08:00
Asteburuak eta jai-egunak 24h

LARRIALDIETAKO TELEFNOAK

112 edo 943 46 11 11
*Zenbaki hauek larrialdi kasuetan baino ez dira erabili behar.
Urte osoko zerbitzua eskaintzen dute, 24 ordukoa.



ETXEBIZITZA

Eusko Jaurlaritzak Etxebide eta Alokabide zerbitzuak ditu, euskal zerbitzu publikoko prestazioak osatu eta babesten dituen sare publikoa. Bertara zuzentzea gomendatzen dizugu etxebizitza bat erosi edo alokatu nahi baduzu.

ETXEBIDE

Aurrez aurreko arreta eta telefonikoa
ZUZENEAN (Jaurlaritzaren herritarrarenganako arreta zerbitzua)
Telefonoa: 012
Helbidea: Andia Kalea, 13, 20004 Donostia
www.etxebide.euskadi.eus

ALOKABIDE GIPUZKOA

Telefonoa: 012
Helbidea: Errotaburu Pasealekua, nº 1, 7ª, 20018 Donostia
www.alokabide.euskadi.eus

Debako Udalak udalerrian alokatutako etxebizitzaren inguruan dirulaguntza partida bat du. Honen inguruko informazio gehiago behar izanez gero, Udaletxera jo dezakezu.

DEBAKO UDALA

Portu kalea 1, 20820 Deba
943 192 840
deba@deba.eus
www.deba.eus



BERDINTASUNA

Debako Udala

Berdintasun saila
informazio orokorra

📍 Portu kalea, 1 (20820)

☎ 943 19 28 40

✉ berdintasuna@deba.eus

Ordutegia: asteartetan,
9:00etatik 15:00etara

Berdintasun zerbitzuaren helburu nagusia da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eragitea, bizitzako arlo guztietan, bai esparru pribatuan eta bai esparru publikoan ere. Horretarako berdintasun politika ezberdinak lantzen dira.

Helburu zehatzak:

- Ezberdintasunei aurre egin emakume eta gizonen artean aukera-berdintasuna arlo guztietan bermatzeko
- Debako emakumeen parte hartzea indartu eta areagotu
- Errespetua, zaintzaren etika, berdintasuna, eta elkartasuna bultzatzen dituzten balioak bultzatu. Horretarako urtean zehar kanpaina ezberdinak lantzen dira, sentsibilizazio, formazioa, informazioa eta hezkuntza ardatz dituzten kanpainak.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxista eta jarrera diskriminatzaileak ekidin ahal izateko lanketa ezberdinak garatzea


TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak: 112

Ertzaintza Eibar: 943 53 17 00

Genero-indarkeriaren edota sexu erasoen Biktimei Laguntzeko
24orduko telefono-arreta zerbitzua doan: 900 840 111

Era berean, 016ra deituz gero, zerbitzu horrekin jarriko zaituzte



HEZKUNTZA

Deban, Itziarren eta Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza zerbitzua doakoak dira. Debaren kasuan, hezkuntza eskaintza 0-16 urte bitarteko haur, nerabe eta gazteei dago zuzendua. Halaber, diru-sarreraren arabera dirulaguntzak eta hobariak izaten dira.

ADINA	HEZKUNTZA	MOTA IZAERA
0-2 Urte	Haur Hezkuntza I	Ez derrigorrezkoa / Ordaindu behar da *
2-5 Urte	Haur Hezkuntza II	Ez derrigorrezkoa / Doakoa
6-12 Urte	Lehen Hezkuntza	Derrigorrezkoa / Doakoa
12-16 Urte	Derrigorrezko Bigarren Hezk.	Derrigorrezkoa / Doakoa

Debako udalerritik kanpo, euskal hezkuntza sistemak beste hainbat zerbitzu ere eskaintzen ditu:

16-18 Urte	Batxilergoa/Lanbide Heziketa	Ez derrigorrezkoa / Doakoa
18tik gora	Unibertsitatea / Goi formazioa	Ez derrigorrezkoa / Ordaindu behar da

IKASTETXEAK

HAURRESKOLA 0-2

- Helbidea: Angulero 2-4, bajo
- Telefonoa: 943 192 081
- e-posta: deba.deba@haurreskolak.net
- Web: www.haurreskolak.eus

LUZARO IKASTETXEA 2-12

- Helbidea: Itziarko bidea 18
- Telefonoa: 943 899154
- e-posta: 012947aa@hezkuntza.net

ITZIAR 2-12

- Helbidea: Galtzada Kalea, 8, 20829 Itziar, Gipuzkoa
- Telefonoa: 943 899327

MENDATA INSTITUTUA

- Helbidea: Itziarko bidea 20
- Telefonoa: 943 899265
- e-posta: 012947ac@hezkuntza.net
- Web: www.mendatabhi.hezkuntza.net

CEPA DEBA HHI HELDUEN HEZKUNTZA IKASTETXEA (18 urtetik gora)

Hor honako ikastaro hauetan eman dezakezu izena:

- Gaztelania ikasteko ikastaroa.
- Irakurtzen eta idazten ikasteko ikastaroa.
- Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua ateratzeko ikastaroa.

Eskolak goiz eta arratsaldean izaten dira.

- Helbidea: Calle Astillero, 4
- Telefonoa: 943 192176 (673 11 81 81)
- e-posta: 012634@hezkuntza.net



EUSKARA

Euskara, gure hizkuntza ofiziala izateaz gain Debako berezko hizkuntza ere bada, eta ikasteak Deban eta debarron artean integratzen lagunduko dizu. Herrian hainbat aukera dituzu horretarako. Gainera, euskara ikasteak sortzen duen kostu ekonomia arintzeko laguntzak ere badira.

DEBABE udal euskaltegia

Helbidea: Ifar kalea 12, bajo

Telefonoa: 943192236

e-posta: debabe.deba@telefonica.net

Euskara ikasteko dirulaguntzak

Udal Euskaltegian ikasterik ez duten langabetu eta ikasleei dirulaguntzak ematen zaizkie.

Baldintza hauek bete behar dira: Deban erroldatuta egotea, ikastaroetan izandako asistentzia %85ekoa izatea.



ENPLEGUA

Deban enplegua bilatzen laguntzeko bulegorik ez badugu ere, inguruko herrietan baliabide bat baino gehiago dituzu aukeran. Bertan, enplegurako informazioa jaso eta lan eskaintzak kontsultatu ahal izango dituzu. Bi kasuetan txanda hartu behar da aldez aurretik.

LANBIDE ELGOIBAR

Gabriel Krutzelaegi K., 8,20870 Elgoibar, Gipuzkoa

943023845

www.lanbide.euskadi

SEPE-Eibar

Bittor Sarasketa Kalea, 9,20600 Eibar, Gipuzkoa

943 20 99 56

www.sede.sepe.gob.es



GARRAIOAK

Debatik inguruko herri eta hiriburuetara joan-etorria egiteko garraio zerbitzu ezberdinak dituzu. Ordutegiak Turismo Bulegoan kontsulta ditzakezu:

AUTOBUSAK

Lurraldebus

Helbidea: Paseo Cubierto
Telefonoa: 900 300 340
e-posta: lurraldebus@lurraldebus.eus
web: www.lurraldebus.eus

Deba-Mutriku-Ondarroa / Ondarroa-Mutriku-Deba
Deba-Mendaro-Elgoibar-Eibar / Eibar-Elgoibar-Mendaro-Deba
Deba-Itziar-Zumaia / Zumaia-Itziar-Deba
Donostia-Deba-Lekeitio / Lekeitio - Deba -Donostia
Deba-Soraluze

Alsa Turitrans

Helbidea: Hondartza 11
Telefonoa: 902 422 242
e-posta: alsa@alsa.es
web: www.alsa.es

Irun-Deba-Bilbao-Santander / Santander-Bilbao-Deba-Irun
Egunero
Irun - Santander eta Santander - Irun

Irun 11:00	Santander 12:30
Donostia 11:25	Bilbao 14:15
Deba 12:00	Eibar 14:55
Eibar 12:40	Deba 15:15
Bilbao 13:30	Zarautz 16:10
Santander 15:30	Irun 16:45

TAXI

Helbidea: Gudarien plaza s/n
ALAIN
636 135 008
alain@taxideba.eus
IGNACIO
666666717
taxideba@gmail.com

TRENAK

Euskotren (lan egunetan 6:42etatik 21:42ra orduro)

Helbidea: Plaza Arakistain s/n
Telefonoa: 902 543 210
web: www.euskotren.eus

BILBAO - DONOSTIA

Bilbo - Etxebarri - Basauri - Galdakao - Usansolo - Bedia - Lemoa
- Amorebieta-Etxano - Euba - Durango - Traña - Berriz - Zaldibar
- Ermua - Eibar - Elgoibar - Mendaro -Mendaro - Deba - Zumaia
-Zarautz - Donostia - Amara.

Astelenetik ostiralera

Deba - Donostia	06:44 - 21:44
Donostia - Deba	05:50 - 20:50
Deba - Bilbao	06:43 - 20:43
Bilbao - Deba	05:58 - 19:58

Larunbat, igande eta jai egunetan

Deba - Donostia	07:44 - 21:44
Donostia - Deba	06:50 - 20:50
Deba - Bilbao	08:43 - 20:43
Bilbao - Deba	06:55 - 19:55



UDAL INSTALAZIOAK

KIROLA

- Errotazar futbol zelaia. Belar artifiziala. Artzabal auzoan.
- Aldats frontoia. Estalia. Gurutze kalean. Arauzko frontoia. 3
- Zabalsoro frontoia. Estalia. Itziar auzoan. Arauzko frontoia.
- Udal kiroldegia. Kirol anitzeko kantxa estalia. 2 gimnasio. Pilates gela. Fitness gela. Spinning gela. Aldagelak.
- Euskal Jolas frontoia. Irekia.
- Presaola frontoia. Estalia. Lastur auzoan. Frontoi motza.
- Euskal Jolas Probalekua.
- Presaola Bolatokia (Lastur).
- Surf-ur kirolak. Nafarroa Plaza 1 behean lokala egokitua.

GAZTERIA

GAZTELEKUA

- Helbidea: Osio kalea 7 behea (20280)
- E-posta: debakogaztelekua@hotmail.es
- Ordutegia: 12 eta 17 urte bitarteko gazteentzako irekita asteartetik ostiralera 17:00 tik 19:00tara eta larunbata eta igandean 17:00tik 20:30tara.

OSTOLAZA UDAL LIBURUTEGIA

Liburutegi publikoa informazio, prestakuntza eta aisialdi alorrean dituzun beharrak asetzeko prestatutako zerbitzua duzu. Liburutegi publikoko zerbitzuak berdintasuna du oinarri, eta edonor joan daiteke bertara.

- Helbidea: Astillero kalea 6-8
- Telefonoa: 943 19 25 60
- e-posta: ostolaza@deba.eus
- www.liburutegiak.euskadi.net



Deba udalerrri bizia da, eta bere gizarte eta kultura-ehunean ekarpen handia egiten duten elkarte eta eragile ugari ditu.

KIROLA

- Amaikak Bat Futbol Elkartea. Futbola. Osio 7 behea
- Burdin Kurutz Mendi Elkartea. Montañismo. Osio 7 behea
- Euskal Jolas Pilota Elkartea. Pelota. Gurutze kalea
- Amaikak Bat Txirrindulari Elkartea. Ciclismo. Osio 7 behea
- Deba-Itziar Xtreme Triatloi Taldea. Triatlon. Osio 7 behea
- Zurrunbilo Surf Elkartea. Surf y actividades acuáticas. Nafarroa plaza 1 behea
- Debakayak Elkartea. Piragüismo. Osio 7 behea
- San Roke Xake Taldea. Ajedrez
- Debasket Saskibaloi Kluba. Baloncesto

MUSIKA

DEBA MUSIKAL

Debako udal musika eta dantza eskola

- Helbidea: Astillero Kalea, 12, 20820 Deba, Gipuzkoa
- Telefonoa: 943 19 20 16

KULTURA

KULTUR ELKARTEA DEBA

- Helbidea: J.M. Ostolaza Kalea, 12, 20820 Deba, Gipuzkoa

EUSKARA

ZUHATZA EUSKARA ELKARTEA

- Helbidea: Ifar Kalea,12

GAZTERIA

KOLORE ANITZ

- Helbidea: koloreanitz@gmail.com
- Telefonoa: 688 62 39 96



JAIK ETA OHITURAK

Alaitasuna eta dibertsioa ere badira debarron izaeraren ezaugarri. Debako festa nagusiak **SAN ROKE JAIK** dira eta abuztuaren 14tik 18ra ospatzen dira. Egun garrantzitsuena abuztuaren 16a dugu, San Roke eguna ospatzen baita. Hala ere, herritarrek gogotsu bizitzen dituzten ekitaldi ugari izaten dira: festa hasiera, danborrada, entzierro eta zezenketak, San Roke eta Jorrai dantzak, berbenak...

Horrez gain, urtean zehar beste hainbat ekitaldi, jai eta jarduera izaten dira:

Urtarrila

- Errege kabalgata
- Urte Berriko Feria
- Idi probak
- San Sebastianak Elorriagan

Otsaila

- San Blas
- Santa Ageda bezpera
- Talo Eguna Lasturren

Martxoa - Apirila

- Aste Santua

Maiatza

- Erromeri Eguna Itziarren
- Debarren eguna
- San Asentsio jaiak Endoian
- Euskal Antzerki Astea

Ekaina

- San Juan Sua (ekainak 23)
- San Juan eguna Santa Katalinan: ekainak 24
- San Pedro bezpera (ekainak 28)
- Euskal Antzerki Astea

Abuztua

- Koproaixak Itziarren
- Udako Musikaldia
- San Roke jaiak
- Artisau feria

Iraila

- San Nikolas jaiak Lasturren
- Kaleko margo lehiaketa
- Euskal Jaia
- Animadeba

Azaroa

- Itziarko feria
- Santa Zezilia

Abendua

- Gabonak





DEBAKO UDALA

